

HITZAURREA

DOI: 10.1387/lan-harremanak.16552

Monografiko honetan aurkezten ditugun artikulua, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikerlari talde batek egindako lan baten ondorioa dira. Lan hura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza Sailak finantzaturako proiektu batean gauzatu zen, Euskal Herriko unibertsitateetako ikerketa-talde desberdinek parte hartu zutelarik. Proiektua 2014ko abenduaren 22an onartu zen, 2015eko urriaren 30a baino lehen bukatzeko konpromisoarekin.

Artikulu hauetan zehar hiru ikerketa-lerro nagusi garatu dira, aurkezpen honetaz gain, zortzi artikulutan banatu ditugun emaitzekin. Alde batetik ikerketa proiektuaren gai nagusia kokatzen saiatu gara. Helburua, oraingo enpleguaren banaketarako alternatibak zein testuinguru objektibo eta subjektibotan planteatzen diren ikustea izan da, alternatiba horiek analizatzea eta indarrean jarri izan diren esparruetan haien egikaritzea aztertzea, bereziki Frantziako 35 orduetako esperientziaren analisirako elementuak eta balorazio kritikoa aurkeztuz. Bigarrenik, EBko ikuspegi konparatua erabiliz, eremu juridikoan lanaldiaren banaketarako irekita dauden aukerak aztertu dira. Hirugarren ikerketa-lerroa Gipuzkoako lan baldintzen eta langabeziaren inpaktuaren garapen orokorra analizatzea izan da, eta hortik abiatuz, egungo enpleguaren banaketaren bidez, langabeziaren balizko murrizketa aztertu dugu, hala nola Ongizatearen Estatuaren egokitzapena langabezi masiboarekiko, eta alternatibak planteatu ditugu kontutan hartuz beti ere lana ondasun urria dela. Lerro honetan bertan, enpleguaren eta lanaldiaren banaketa eta berrantolaketarako proposamen zehatzak diseinatzeke hartu beharreko oinarriak proposatzen saiatu gara, horrelako proposamenak errentaren banaketan, finantza publikoetan eta fiskalitatean sortzen dituzten eraginak ahaztu gabe.

Esan bezala, ikerketa proiektuaren emaitzak zortzi artikuluetan banatu ditugu. Lehengoan, «Lanaldiaren murrizketarako politiken esanahi historikoa eta gaurkotasuna», ikerketaren gaiaren aurkezpen orokorra egiten da, lanaldiari, bere murrizketari eta bere banaketari buruzko eztabaida baldintzatzen dituzten arazo nagusiak adieraziz: Lanaldiaren murrizketa (LM) enpleguaren banaketarako neurria da?, Zein baldintzatan sor daitezke lanpostu berriak langabe-

zia gutxitzeko? Gaiaren ibilbide luzea erakusten da —langile mugimenduaren sorrerarako arrazoi nagusienetakoa izanik— eta honen inguruko diagnosirako elementuak adierazten dira, esaterako, Europako lanaldien murrizketa eta horien inpaktua geroz eta lanpostu gutxiago sortzen dituen hazkundean. Artikulu honetan ere lanaldi partzial behartuaren gaiari buruz hitz egiten da, berau izanik lan harremanen dualizazioa sortzen duen elementuetako bat, eta beraz, LM orokortu baten helburuekin antagoinikoa. Azkenik, LM neurriak indarrean jarri ahal izateko hainbat arazo, zailtasun eta abantaila aztertzen ditugu.

Hurrengo artikulua «Enplegua eta desenplegua, ongizate subjektiboaren ikuspegitik» izenburua darama. Ikuspegi honetatik enpleguak eta lan baldintzek zoriontasunean eta norbanakoei deklaratzeko duten ongizate subjektiboan duten eragina azaltzen saiatu gara. Gai honen inguruan argitaratu diren ikerlan ugariaren errebisiotik abiatuz, egiaztatzen da enplegua edukitzea pertsonen zoriontasunerako baldintza nagusienetakoa dela. Langabeziak, diru sarrerak gutxitzeaz gain, pertsonaren autoestimua eta lan eremuan ezartzen diren harreman sozialak suntsitzen ditu. Hori dela eta, ongizatea handitzeko politika publikoek lehentasunezko helburu gisa okupazio-tasa altuak eduko beharko lituzkete. Era berean, bestelako emaitzak aurkitu ditugu: pertsonak nahiago dute lan egin diru-laguntzak jaso baino, eta jendeak lanpostu bat behar eta nahi izanik ere, langile asko prest egongo liriteke ordu gutxiagotan lan egiteko.

Aurkezten dugun hirugarren artikuluan, «Lanaldiaren murrizketaren eragina enpleguan: frantziar esperientziaren irakaspenak», Frantziako LM politikaren diagnosirako elementu batzuk planteatzen saiatu gara. Egiaztapen batek abiatzen gara: LM aberastasunaren banaketan egondako erregresio handia aurre egiteko birbanaketa-neurria da, bai Frantzia, Euskal Herria edo Espainia. Azken hamarkadetako produktibitate-igoerak gaizki banatu direla frogatu ondoren, frantziar esperientzia aztertuko dugu, a priori progresiboki orokortu izateko diseinatutako LM apustuak izan zituen aurrekarietatik abiatuz. Ondoren, Aubry Legeen (1998-2000) oinarritzko mekanismoa ikusiko dugu, bereziki 20 landunetik gorako merkataritza-enpresa guztien derrigorrezko LM 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera. Bi lege horiek lanaldian, enpleguan eta soldatetan izandako eraginaren balorazio kritikoa nabarmenduko dugu. Gero, LM politiken atzerapauso sarkozyarraren ondorengo garapenak aztertuko ditugu. Artikulu honen helburua frantziar esperientziaren balantzea egitea da, bere irakaspenak gure errealitatean ezartzeko borondatearekin lotuz.

«Lanaldiaren murrizketari zuzenean lotutako gaien oinarritzko erregimen juridikoa» artikulua da lan araudia eta desenplegua gutxitzeko politikak garatzen dituen marko juridikoa erakusten duena, bertan ere aztertzen direlarik LM lortzeko neurrien ezarpenarako alternatibak —kontutan hartuz gai honetan administrazio desberdinek dituzten eskuduntzak—. Artikuluaren amaieran, LM politikak ezartzeko lehentasunezko bost sektoreen (azken artikuluetan lortutako

emaitzen arabera) lan hitzarmenetako batzuk LMrekin zerikusia duten neurrien zerrenda aurkezten da.

Azkenik, amaierako lau artikuluetan proiektu honen hirugarren ikerketa-le-roari heltzen diote. «Enpleguaren diagnostia Gipuzkoan» izenburua duen artikuluan Gipuzkoako enpleguaren eta okupazioaren gaurko egoeraren analisi sakon bat egiten da, euskal, espainiar eta europar eremuen testuinguruan. Lanarekin lotutako aldagai nagusien garapena deskribatzeaz gain (jarduera- eta langabezia-tasak, adina, sexua, kontratu-motak), lurraldean enplegu gehien sortzen duten sektore ekonomikoetan lanaldiaren garapenaren analisi zehatz bat egin dugu.

Ondoren, «Errentaren banaketa funtzionala eta lan-kostuak Gipuzkoan: lanaldiaren murrizketarako azterketa enpiriko bat» izenburuko artikuluan, saiatu gara ikusten nola banatzen diren Gipuzkoan lanaren eta kapitalaren errentak, bestelako errenta-banaketa batek, eta bere ondorio fiskalek, balizko LM politika ordaintzeko balio ote dezakeen aztertzeko helburuarekin. Monografiko honen gai espezifikoak ez bada ere, uste dugu fiskalitateari eta irabaziak dituzten enpresek sektore publikoari ekarpenak egiteko neurriei buruzko hausnarketa egitea ezinbestekoa dela. Artikulu honetan ere lan-kostu unitarioen analisisa egin da, Gipuzkoako soldatapekoen multzoan, eta baita sektoreka ere.

Hurrengo artikuluan, «Lan- eta gizarte-adierazleak, eta lanaldi murrizketaren bideragarritasun sektoriala Gipuzkoan», sektore ekonomiko desberdinetan enpleguan eta okupazioan eragiten duten aldagai nagusien garapena aztertu dugu sakonki. Datu horietan oinarrituta, ondorioa da badaudela Gipuzkoan bost sektore non lanaldi murrizketa politikak ezartzea bideragarriagoa eta eraginkorragoa litzatekeen.

Bukatzeko, monografikoaren zortzigarren artikuluan, «Lanaldi murrizketarako proposamenak Gipuzkoan», lurralde honetan ezarri litezkeen LM politikak diseinatzeko ahalegina bideratzeko irizpideak aurkezten ditugu. Lehenik, LMri buruzko hausnarketa egiten da, desenplegu kronikoa eta lanaldi partzial behartua gutxitzeko tresna bezala azalduta, horrek konpondu nahi den arazoaren diagnosirako sintesi-elementuak adierazten baitizkigu. Zentzu honetan, LM politika aurrera eramateko kontutan hartu beharreko lan-, gizarte- eta ekoizpen-auzi nagusiak heltzen ditugu. Hirugarren atalean, populazio aktiboaren artean lan egindako ordu guztien banaketarako balizko azken agertoki bat iradokitzen da (bi azken jokaleku desberdinekin: langile guztiek lanaldi osoa edukiko luke-tena, eta partzialtasun graduak onartuko lituzkeena), eta laugarren atalean, azke-nik, soldatapekoen artean burutzeko LMren kasua aztertu da, lanpostu berriak sortzeko kostuak, eta honek langileen, kapitalaren eta sektore publikoaren artean errentaren banaketan izango lukeen eragina kontutan hartuz.

Bestalde, eta monografikoaren eranskin gisa, Michel Husson-en ekarpen berri bat dago. Artikulu honetan Lanaldiaren Murrizketak bete beharreko baldin-

tzak azaltzen dira enplegua sortu ahal izateko. LM-ren bi aukera aurkezten dira: lehena, baztertzaila, lanaldi osoko enpleguarekin batera lanaldi partziala eta langabezia onartzen dituena; bigarrena, berdintasunezkoa, lan egindako ordu guztiak lan egin nahi duten pertsona guztien artean banatzen dituena. Artikuluan erakusten da enplegu beteko lanaldiaren eta benetako lanaldiaren arteko diferentzia erlatiboa langabezia-tasaren berdina dela. Bukatzeko, LM baten finantziarioari eta kontu politiko batzuei buruzko zenbait iradokizun eskaintzen dira.

Gure asmoa da lan honetan planteatu diren proposamenak hausnarketarako elementua izatea funtsezko, bidezko eta birbanatzailea izango den LM-rako neurrien estrategiak planteatzerakoan. Gainera, epe luzeagoko hiru ikuspuntuetatik egiten dugu: lanaren eta enpleguaren baldintza orokorrak arautuko dituen bezko lan-legedi zuzen eta propio bateranzko aurrerabide gisa, lehenik. Lan harremanen arautze sektorial eta probintzialak indartzeko ikuspuntutik, bigarrenik. Eta ezinbestean, eskualde eta enpresen arteko kooperaziorako urrats berriak zabaltzeko beharraz, langile gehiago dituztenetatik hasita baina tokiko hitzarmenerako ezaugarriak kontutan hartuz, sindikatuek eta gizarte-eragileek bultzatutako Eskubide Sozialen Karta moduko inizatibean ildotik. Hau guztia, Lanaldiaren Murrizketa langile klasearen bizi-baldintzei, ekoizpen baldintzei eta errenten fiskalizazioari buruzko gizarte-etzabaida batean oinarritu behar dela sinisten dugulako.

Donostia, 2016ko apirilaren 28an

Jose Mari ZENDOIA SAINZ, Miren Maite ANSA EZEIZA,
Aitor BENGOTXEA ALKORTA, Verónica CASTRILLÓN SERNA,
Mikel DE LA FUENTE LAVÍN eta Jon Bernat ZUBIRI REY